

2.2.gaia

Ariketak

MOTAK, ERAZAGUPENAK, ESLEIPENAK, S/I

1. Sailkatu ondorengo programan azaltzen diren elementuak, VBasic programazio lengoiaian dauden kontzeptuen arabera:

a.	Literalak	e.	Erazagupenak
b.	Hitz erreserbatuak	f.	Datu-motak
c.	Identifikadoreak(Estandarrak ez)	g.	Adierazpenak
d.	Iruzkina	h.	Aginduak

```
DIM KATETO AS SINGLE
DIM AZALERA AS SINGLE
CONST TESTUA AS STRING*20 = "hirukiaren azalera: "
KATETO = InputBox("Eman katetoaren balioa: ")
REM kalkulatu azalera
AZALERA = KATETO ^ 2 / 2
PRINT TESTUA & AZALERA & " da."
```

2. Ondoko predikatuen adierazpenak idatzi itzazu:
- (a) X aldagaia 100 baino txikiagoa
 - (b) X aldagaia 50 balioaren ezberdina da eta Kar aldagaia puntu karakterearen berdina da
 - (c) X bikoitia da
 - (d) X aldagaia 20 baino txikiagoa da edo bikoitia da
 - (e) Kar aldagaia bokala da
 - (f) Kar aldagaia kontsonantea da

3. Ondoko adierazpenen emaitzak kalkulatu:

(a) $2 + 6 * 3 + 4$	(f) $2^2 \setminus 3$
(b) $(2 + 6) * 3 + 4$	(g) $3 - 20 \setminus 4 - 3 * 2$
(c) $(2 + 6) * (3 + 4)$	(h) $4 * 6^2 - 3^2 \setminus 2$
(d) $20 \bmod 3 \setminus 2$	(i) $30 - 2 * 4 \setminus 6 \bmod 3 * 8$
(e) $20 \bmod 3 / 3$	

4. Ondoko definizioak emanda, esan zuzenak diren eta lortuko den emaitza:

```
DIM X AS INTEGER
DIM Y AS INTEGER
DIM Z AS SINGLE

X = 10
Y = X+10
Z = X
X = Z
Y = X / 5
Y = X \ 5
```

5. X eta Y aldagaiak emanda, bere balioak trukatzeko ekintzak idatzi:
DIM X,Y,Z AS INTEGER
 - Hasieran: X=10 eta Y=5
 - Bukaeran: X=5 eta Y=10
6. A, B eta C aldagaiak emanik non A=a, B=b eta C=c balioa duten, programa bat idatzi honako efektua lortzeko: A=b, B=c eta C=a.
7. Programa baten bidez triangelu baten azalera kalkulatu nahi dugu ondorengo formula erabiliaz:
$$\text{Azalera} = (p(p-a)(p-b)(p-c))^{1/2}$$
non p triangeluaren erdiperimetroa den, eta $p=(a+b+c)/2$, a,b eta c triangeluaren aldeak izanik.
8. Celsius graduak Fahrenheit gradu bihurtuko dituen programa idatzi: $F = C * (9/5) + 32$
9. Zenbaki osoko bat irakurtzen duen programa batek, zenbakia ehuneko hurbilenera biribiltzen du. Zein da programa hori? Idatz ezazu. Adibidea:
Sarrerako zenbakia: 1848
Irteerako zenbaki biribildua: 1800